

GOBERNU BATZARRA

2014. 10.03

Alkate ordezkoa:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko urriaren 3an, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Lore Agirre Zipitria	
Zinegotziak:	
Hasier de los Rios Soraluze	
Rosa M. Urkola Irigoien	
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernández	1.- Aurreko akta onartzea.
Beh. Beh. Idazkaria:	2.-Ikaztegieta eta Tolosako Udalen arteko hitzarmena sinatzea.
Karmele Contreras Goikoetxea.	3.- Euskaltegia: 4. HE. Tarifaren onarpena.
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	4.-Etxez Etxeko zerbitzua: Ilarkiren iraileko faktura.
Paulino Alonso Eraso.	5.- 2014/1330 Alkate dekretua berrestea.
	6.- Udazkeneko programazio eszenikoa.
	7.-Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 errepidean galtzada aldatzeko eta Amarotz Auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 4. ziurtagiria (FV-1409-0021 faktura).
	8.-29/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko irailaren 26an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Ikaztegieta eta Tolosako Udalen arteko hitzarmena sinatzea.

Tolosako Udalak hondakin bilketaren zerbitzua eskaintzen die bere herritarrei. Izan ere, zerbitzu hau beharrezkotzat jotzen du abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzkoak.

Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauak, zerbitzu hori prestatzeagatik, udalak legitimatzen ditu tasak ezartzeko.

Hainbat arrazoi direla medio (geografikoak) Tolosako udalerriaren eremuan dauden hainbat ondasun higiezin (II. Eranskina) hondakin bilketaren zerbitzua, Tolosako udalak eskaini beharrean, Ikaztegieta Udalak eskaintzen die.

Horregatik, bi udalen artean hitzarmena prestatu da.

Hitzarmen horren bidez, Ikaztegieta udal dokumentu horren II. Eranskinean azaltzen diren eraikuntzei hondakin bilketa zerbitzua prestatzera konprometitzen da.

Zerbitzuaren kostu guztiak Ikaztegieta udalak bere gain izango ditu eta Tolosako udalak ez du gastu horietan parte hartuko.

Hau dena guztia kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ikaztegieta eta Tolosako Udalen artean hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA.- Alkateari ahalmenena ematea erabaki horretan gauzatzen diren ekintzak sinatzeko eta hitzarmena formalizatzeko.

3.- Euskaltegia: 4. HE. Tarifaren onarpena.

Bi mila hamalauko maiatzaren 21ean, Ogasun Batzordea bildu zen 2014-2015 ikasturterako ordenantza fiskalen aldaketak diktaminatzeko. Beste urteetan bezala, martxoko KPIa erabiltzea erabaki zen, baino %0koa izan zenez, ordenantza fiskalen tarifak mantentzea diktaminatu zen. Aplikazio arauetan ere, ez zen aldaketarik proposatu eta 2013-2014 ikasturtekoak mantendu ziren.

Gaur egun, 4. mailako Hizkuntza Eskakizuna eskaintzea erabaki dute Aitzol Euskaltegian. Maila honetako ez daude tarifarik onartuta. Ondorioz, Ordenantza fiskaletako 2.1.19 eranskineko 6. puntua aplikatzea proposatzen da. Hau da, "bestelako moduluei" dagokiena.

Hori dela eta,

MATRIKULA: 1,20€/orduko
175 ordu
1,20 x 175= 210€

MATERIALA: 32 ikastunitate
45-50 orri
0,09 €
140 €

GUZTIRA: 350€

Aplikazio arauetako 2. puntuak honakoa dio: “Aurrez aurreko eskoletan eta modulu konbinatuetan ikasle tolosarrek matrikularen %50a ordaindu beharko dute ikasturte haseran. Ordenantza fiskal hauetan gertzen diren baldintzak bete ezean, falta del %50a kobratuko zaie ikasturte amaiera aldera edota ikastaroa utzitakoan.”

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 4. maila prestatzeko ikastaroetarako tarifa hauek onartzea:

- Orokorra: 350€

- Tolosarrak: 245 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Aitzol Udal Euskaltegiari.

4.- Etxez Etxeko zerbitzua: Ilarkiren iraileko faktura.

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako 76.827,70 euroko faktura onartzea, iraileko Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

5.- 2014/1330 Alkate dekretua berrestea.

A.G.i dirulaguntzak familiei izeneko partidatik Emaus Bidasoari 110€-ko faktura ordaindu zaio 2014/1330 Alkate Dekretuaren bidez.

Hau kontutan izanik, Gobernu Batzarreko kideak berretsi egin dute, aho batez, 2014/1330 dekretua.

6.- Udazkeneko programazio eszenikoa.

Kultura Batzordeak aurtengo irailaren 16an, udazkeneko programazio eszenikoari buruz egindako proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aurkeztutako egitaraua eta 47.271,50€-ko aurrekontua onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultura departamentuari.

7.-Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 errepidean galtzada aldatzeko eta Amarotz Auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 4. ziuertagiria (FV-1409-0021 faktura).

Udal Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez, 2014ko martxoaren 28an, Campezo Obras y Servicios, SA, enpresari esleitu zitzaion "Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 Errepidean Galtzada Aldatzeko eta Amarotz Auzoan berdeguneak sortzeko Urbanizazio Osagarrien Obrak egiteko" kontratua, 1.612.601,25 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain, bi mila eta hamalauko irailaren 26an, 4. ziuertagiria aurkeztu du, obra zuzendaritzak 158.986,70 €-koa BEZ(a) barne.

Ziuertagiri hau aztertuta, eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola aipatutako ziuertagiriari, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Amarotz auzoan GI-2135 errepidean galtzada aldatzeko eta Amarotz auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 4. ziuertagiria (fak zkia: FV1-1409-0021, Campezo Obras y Servicios, S.A., enpresarena), 158.986,70 €-koa (BEZ barne).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Campezo Obras y Servicios, S.A., enpresari eta Kontuhartzaitzari.

8.-29/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **29/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **117.035,43** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **29/2014** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA